

EEC LAUNCH - START-UP COMPETITION BY COFIDIS LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Xedea

Dokumentu honen xedea [adigital](#) enpresak antolatutako EEC Launch – Start-up Competition by COFIDIS lehiaketako araudia zehaztea da, Bilbon egingo da [European Ecommerce Conference](#) (EEC) jardunaldiaren bederatzigarren edizioa. Ekitaldiaren babeslea COFIDIS enpresa da.

2. Parte hartzeko baldintzak

Parte-hartzaileek ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

- Negozio digitaletan jardun beharko dute lanean, besteak beste, merkataritza elektronikoan (retail, zerbitzuak, edukiak); marketin edo komunikazio digitalean; mugikorrarekin lotutakoan; zerbitzuetan edo industria-teknologian.

- 2012ko azaroa baino geroago hasi izana jarduera, 2014. urtean 1 milioi euro baino gutxiago fakturatu izana eta finantziazio-errondetan 500.000 € baino gutxiago lortu izana.

Baldintza horiek betetzen ez dituzten parte-hartzaileak zuzenean baztertuko dira lehiaketatik.

3. Lehiaketaren prozedura eta faseak

Parte-hartzaileek antolatzaileen inprimaki bat bete beharko du eta, bertan, eskatutako informazioa eman beharko dute, elevator pitch-ari buruzko bideo bat gehituta, eta berariaz bete beharko dituzte oinarri hauek.

Eskaeren harrera: irailaren 24tik urriaren 26ra. Inprimaki publikoaren bidez EEC Launch lehiaketan eskaera aurkeztea.

Finalisten hautapena: urriaren 27tik azaroaren 3era. Lehenik eta behin, ezarritako baldintzak bete ez dituzten hautagaitzak edo informazio guztia eman ez duten hautagaitzak kenduko dira. EEC Launch lehiaketan zehar elevator pitch gauzatuko duten 10 finalistak honela hautatuko dira:

- 2 finalista parte-hartze publikoaren bidez hautatuko dira Twitter-en gehien aipatutako traola ofizialak monitorizatuz. Horretarako, aipatutako epean zehar, Twitter-eko traolei jarraipena egiteko tresna bat aukeratuko du antolakuntzak. Hautagairen batek uko egiten badio hautapenari, gehien aipatutako hurrengo proiektuak beteko du postua. Beste
- 8 finalistak SociosInversores laguntzaileak hautatuko ditu, oinarri hauetako 4. puntuan adierazitako irizpideen arabera. Hala balegokio, publikoaren bozketan hautatutako 2 proiektuak kendu egingo dira. Proiekturen batek uko egiten badio hautapenari, epaimahaiak egindako sailkapeneko hurrengo proiektuak beteko du postua.

10 proiektu finalistak azaroaren 4tik aurrera jakinaraziko dira.

Start-up Competition lehiaketaren finala: Azaroaren 18a. Bilboko Euskalduna Jauregian egingo den EEC Launch lehiaketan zehar elevator pitch gauzatuko duten 10 finalistak.

Elevator pitch-aren iraupena 3 minutukoa izango da gehienez. Proiektu bakoitzak, gehienez, 100 puntu lortu ahal izango ditu, eta ekitaldian egongo den epaimahai profesionalak zuzenean esleituko ditu puntu horiek.

Balorazio onena lortzen duen proiektua izango da EEC Launch – Start-up Competition lehiaketaren irabazlea.

4. SociosInversores laguntzaileak finalistak hautatzeko modua

SociosInversores enpresa liderra da talde-inbertsioetan gaztelania hitz egiten den herrialdeetan eta 80 enpresa baino gehiago finantzatzeko osorik. Enpresa horrek hautatuko ditu 2015eko EEC Launch – Start-up Competition by Cofidis lehiaketako finalistak, bi irizpide hauen arabera:

1. Proiektuaren bideragarritasuna: produktuen edo ideien bideragarritasunean jartzen du arreta, baita merkataritza-bideragarritasunean eta ekonomia-bideragarritasunean ere.
 - Produktuaren edo ideien bideragarritasuna: besteak beste, lehendik dauden produktuaren edo ideien aurrean duen lehiakortasun-abantaila; produktuaren ezaugarriak, lehiakideak edo lehendik dauden alternatibak bezalako aspektuak izango dira kontuan, baita sarrera-oztoporen bat ote dagoen ere (patenteak, garapen garestiak eta ugariak...).
 - Merkataritza-bideragarritasuna (produktua edo zerbitzua saltzeko aukera): horietarako merkaturik ba ote den eta nolako tamaina duen baloratzea, nor izan daitekeen bezero eta zein ote diren horien sarbideak.
 - Ekonomia-bideragarritasuna: kontuan hartuko dira gastuak eta kostuak bezalako aspektuak finantzazio-iturrien aurrean, pasiboaren aurreikusitako bilakaera eta aurreikusitako inbertsioen itzulketa.
2. Talde sustatzailea: nor osatzen duten proiektuaren taldea, kide bakoitzak dituen funtzioak eta gaitasunak eta zein konpromiso- eta inplikazio-maila duten.

5. EEC Launch Start-up Competition lehiaketaren epaimahai profesionalaren osaera eta funtzionamendua

Finalaren epaimahai profesionala ziurtatutako profesionalak osatuko dute eta proiektu arrakastatsuen inbertitzaileak eta fundatzaileak izan daitezke, baita ekitaldiaren babesleak ere. Epaimahairen kideetako bat izango da presidente, eta berdinketarik egongo balitz, haren botoa ebazlea izango da.

Proiektuak epaimahaiak baloratuko ditu eta kontuan hartuko du berrikuntza, inpaktua eta nazioartean hazteko aukerak eta jasagarria ote den.

6. Sariak

Finalista gisa hautatu diren proiektuetako 10 parte-hartzaileari azaroaren 18an eta 19an Bilbon egingo den EEC ekitaldirako bi gold pass eskainiko dizkie adigital-ek. Gainera, adigital-ek 150 euroko dieta eskainiko die enpresa-finalista bakoitzeko, parte-hartzaileen joan-etorriak eta ostatua ordaintzen laguntzeko.

EEC Launch Start-up Competition by Cofidis irabazten duen parte-hartzaileak 2.500 euroko saria jasoko du eta bere elevator pitch-a EEC15en programa nagusian ematea. Baliteke dagozkion atxikipenak aplikatzea sariari.

EEC Launch Start-up Competition by Cofidis irabazten duen parte-hartzaileak zerbitzu hauek jasoko ditu SociosInversores laguntzailearen eskutik:

- Pro plana, (300 €-ko balioa duena) zerbitzu hauek dituenak:
 - Gure analista-taldeak proiektua baloratzea eta berrikustea.
 - Proiektua SociosInversores-en argitaratzea.
 - Zure sektorea interesatzen zaien inbertitzaileei proiektua bidaltzea.

- Inbertitzaileen profiletan toki nabarmena izatea.
 - Zure proiekturako hautatutako Inbertsio-enpresetarako eta Arriskuko kapitalerako sarbidea.
 - Social Media-n proiektua aipatzea.
 - Proiektua interesatzen zaien inbertitzaileekin harremanetan jartzea.
- SociosInversores-eko analista-taldeak egindako Negozio-analisiaren txostena (290 euroko balioa duena).
 - Heziketa-ikastaroa: Ekintzaileentzako eta Inbertitzaileentzako ikastaro orokorra (30 euroko balioa duena).

7. Jabetza intelektual

Parte-hartzaileek beren marka eta korporazio-irudiaren logotipoa modu ez-esklusiboan erabiltzeko eskubidea emango die antolakuntzari, EEC Launch Start-up Competition by Cofidis lehiaketaren promozio-kanpaina sartzeko xedearekin. Gainera, proiektuari buruzko beharrezko informazioa ere eskatuko zaie ekitaldia behar bezala kudeatu eta ekitaldia behar bezala zabaltzeko erakundeak egoki irizten dioten argitaratu ahal izateko.

Parte-hartzaileek EEC Launch Start-up Competition by Cofidis lehiaketan aurkezten diren proiektuei buruz emandako informazioari eta dokumentuei buruzko jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak antolakuntzari soilik lagako dira, ekitaldian parte hartzeko xedearekin, eta antolakuntza izango da informazio hori atzi dezaketen aldean balizko erabilera okerraren erantzule bakarra.

8. Datuen babesa

Parte-hartzaileek ematen dituzten datu pertsonalak antolakuntzaren jabetzako fitxategi batean sartuko dira eta ekitaldia kudeatzeko xedez tratatuko dira, baita antolakuntzan aurrera eramaten diren jarduerai buruzko informazioa helarazteko ere, ematen dituzten komunikabideen bidez. Nahi izanez gero, sartzeko, bertan behera uzteko, zuzentzeko edo uko egiteko eskubideak gauzatu ahal izango dute info@adigital.org helbidean. Era berean, parte-hartzaileek onartzen dute elevator pitch-ak ikus-entzunezko bitartekoen bidez grabatzea eta antolakuntzak erabakitzen duen edozein bideren bidez zabaltzeko ahal izatea.

9. Oinarriak onartzea

Dokumentu honetan EEC Launch Start-up Competition by Cofidis lehiaketaren araudia biltzen da, eta parte-hartzaileek hautagaitzak jasotzeko antolakuntzak erabilitako plataformaren bidez eskatutako informazioa ematen dutenean, adierazten dute badakitela eta onartzen dutela guztiz eta inolako helegiterik egiteko aukerarik gabe, baita ekitaldian zehar bertan parte hartzen duten edozein alde (antolakuntza, babeslea edo epaimahaia) hartzen diren erabakiak ere. Dokumentu honetan besterik adierazi ezean, ezarritako arauak betetzen ez badira edo betetzeko eskatzen diren erabakiak betetzen ez badira, ekitalditik egotziko da.